



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Donostiako

Eskola-Mugikortasuneko

Ekintza Plana



Donostiako

Eskola-Mugikortasuneko

Ekintza Plana



Departamento de Movilidad
Urdaneta, 13/ 20006 San Sebastián
mugikortasuna@donostia.eus / www.donostia.eus

BERASALUCE, ANDER, GEÓGRAFO

PRIETO DE BLAS, ISABEL, GEÓGRAFA . TÉCNICA DE MOVILIDAD

Diseño; Mediaprint, S.L

Enero 2023

AURKIBIDEA

1- SARRERA.....	7
2- HELBURUAK	9
3- AURREKARIAK ETA ABIAPUNTUKO DATUAK	11
3.1. TESTUINGURU HISTORIKOA: ESKOLA BIDEAREN JATORRIA DONOSTIAN.....	11
3.2. EUROPAKO PROIEKTUEN ERAGIN POSITIBOA ESKOLA-MUGIKORTASUNEAN	12
3.3. DONOSTIAKO ESKOLA-MUGIKORTASUNAREN DIAGNOSIA.....	12
3.4. INDARREKO LEGE-ESPARRUA/LEGEDIA	21
3.5. HIRIKO ESKOLA-MUGIKORTASUNAREN TESTUINGURUAN EZARRITAKO	24
3.6. HIRIAN EGIN DAITEZKEEN ESKU-HARTZE BATZUK.....	26
4- EUROPAKO JARDUNBIDE EGOKIAK IDENTIFIKATZEA.....	39
4.1. JARDUNBIDE EGOKIAK IDENTIFIKATZEKO PROZESUA.....	39
4.2. BRIGHTON AND HOVE (ERRESUMA BATUA): WALK TO SCHOOL WEEK PEDOMETER	40
4.3. GINEBRA (SUITZA): LA CALLE ES TUYA! - “La ville est à vous”	41
4.4. GLASGOW (ERRESUMA BATUA): KALE SEGURUAGOAK	42
4.5. EUROPAKO PROIEKTUA: CITY CHANGER CARGO BIKES	43
4.6. SCUOLA FIAB PROGETTO: BIZIBUS.....	44
4.7. SAFE ROUTES TO SCHOOL PROGRAMS.....	45
5- DONOSTIAKO ESKOLA MUGIKORTASUNEKO EKINTZA PLANA	47
1. EKINTZA: ESKOLA-MUGIKORTASUN IRAUNKOR, AKTIBO, SEGURU ETA AUTONOMORAKO MANIFESTU BAT IDAZTEA.....	47
2. EKINTZA: ESKOLA-EREMUAN MUGIKORTASUNAREN ARLOKO ERREFERENTZIAZKO FIGURA BAT SORTZEA. MUGIKORTASUN-KUDEATZAILEA.....	50
3. EKINTZA: BIDE-HEZKUNTZAREN ETA ESKOLA-MUGIKORTASUNAREN TRATAMENDUA EGUNERATZEA IKASTETXEETAN.....	52
4. EKINTZA: ESKOLA-INGURUNEAK ETA IBILBIDEAK HOBETZEA	53
5. EKINTZA: GARRAIO MODUAK ETA MUGIKORTASUN AKTIBOKO OHITURAK SUSTATZEA.....	55
6. EKINTZA: ESKOLA-MUGIKORTASUNAREN BEREIZGARRI BAT SORTZEA.....	57
7. EKINTZA: KOMUNIKAZIO-PLANA.....	59
6- DONOSTIAKO ESKOLA-MUGIKORTASUNEKO EKINTZA PLANAREN LABURPENA	60
7- BIBLIOGRAFIA.....	63

1. SARRERA

Haurrak dira sail honek diseina ditzakeen neurri guztien oinarri. Izan ere, 2003an, berariazko lan-ildo bat sortu zen, eskola-mugikortasunaren etengabeko hobekuntzaz arduratzen dena, Eskola-Bidea, hain zuzen, estatu-mailan berria zena.

Ia bi hamarkada igaro ondoren, eskola-mugikortasunak dituen baldintzatzaile desberdinetatik ikasi dugu, askotan ez baitira nahitaez mugikortasunarekin lotuta egoten, baina behin betiko baldintzatzen dute.

Gaur egun, eta Covidaren pandemiaren ondoren are gehiago, haurren segurtasuna bermatu nahi da, baita hiriak eduki behar dituen aldaketak bultzatu, haurrak era seguruan ibil daitezen.

Oinarri berri batera itzuli nahi izan dugu, ikasitako guztia baztertu gabe. Horretarako, eskola-mugikortasunean inflexio-puntu bat izango den Eskola Bideko Ekintza Plana diseinatu dugu.

Eskola-bideen proiektuak, ikasleak kaleetan segurtasunez eta autonomiaz mugi daitezen eta espazio publikoaren erabilerara eta gozamena berreskura dezaten bideratutako ekimenak dira, haien osasuna eta autonomia hobetzeko helburuarekin. Era berean, eskola-ingurunean mugikortasun aktiboa sustatzea tresna eraginkorra izan daiteke jarduera fisikoak osasunerako duen garrantziari buruzko kontzientziazio-maila handitzeko, txiki-txikitatik.

Aldi berean, hezkuntza-proiektu bat da, zeharkakoa, parte-hartzailea eta espazio publikoa eta mugikortasun-ohiturak eraldatzen dituen. Proiektu horretan, alde batetik, ibilbide eroso, atsegina eta seguruen multzo bat egokitzen da, haurrei eta haien familiei etxetik eskolarako ibilbideak mugikortasun aktiboetan (oinez eta bizikletaz) egiteko aukera ematen diona. Bestalde, auzoaren ingurua gune atsegina batean bihurtu nahi duten ekintza pedagogikoak eta herritarrak garatzen dira.

2. HELBURUAK

Eskola-bidearen helburua, haurrak oinez eta modu autonomoan eskolara joan daitezen sustatzea eta erraztea da, hau da, helduekin joan gabe, ibilbide seguru bat edukitzea. Mugikortasun-ohiturak eraldatzeko gaitasun handia duen tresna parte-hartzailea da, haurren mugikortasunaren segurtasuna lehenesten duena. Gure hiriaren errealitateari oso lotuta dago, etengabe eraldatzeko eta hobetzeko duen bokazioaren adibide nabarmenekin.

Donostiako Udaleko Mugikortasun Arloko beste tresna tekniko bat bezala kontsideratu beharko genuke, motorrik gabeko garraiobideak ikusgarriago egiteko eta balioesteko.

Plan honen helburua haurren kontzientzia kritikoa garatzea da, ingurunea hobetzeko proposamen-espirtua sustatuz. Sarritan, mugikortasunaren arloan, hurrei rol pasiboa ematen zaie, eta horrekin espazio publikoko portaera-arauak eta zirkulazio-arauak barneratzea besterik ez da lortu nahi. Baina hurrek espirtu kritikoa garatu behar dute,

zuzenean eragiten dieten espazio publikoko eta mugikortasuneko elementuak baloratzeko edota zalantzan jartzeko.

Halaber, Hezkuntza Komunitatea, familiak, hezitzaileak, bizilagunak eta, oro har, haurren babesean inplikaturako eragile guztiak inplikatu nahi dira, eguneroko ohituretan aldaketa bat sortzen laguntzeko. Aldaketa horrek aldaketa eraldatzailerak ahalbidetuko lituzke, hurrek kale seguruetatik oinez joateko duten eskubidea garatu ahal izan dezaten.

Hirugarren osagai gisa, ibilbide seguruaren sare bat sortu nahi da, hurrek eguneroko ibilbideetan oinez edo bizikletaz mugitzeko aukera izan dezaten, eguneroko ibilbideetan haien autonomia sustatuz eta segurtasun-baldintzak sortuz. Horrela, murritu egiten da adingabeak eskolara eramaten dituzten ibilgailu pribatuen kopurua, airearen kalitatearen, ingurumenaren hobekuntzaren eta haurren bide-segurtasunaren alde jardunez.

3. AURREKARIAK ETA ABIAPUNTUKO DATUAK

3.1. TESTUINGURU HISTORIKOA: ESKOLA BIDEAREN JATORRIA DONOSTIAN

Ibilbide seguruei buruz hitz egin zen lehen aldia Odensen (Danimarka) izan zen, 70eko hamarkadan. Baina laurogeita hamarreko hamarkadan hasi ziren eskola bideen ekimenak sendotzen Europan eta herrialde anglosaxoietan, hala nola, Estatu Batuetan, Kanadan, Australian eta Zeelanda Berrian. Espainian XXI. mendera arte itxaron beharko genuke lehen eskola-bideak Katalunian eta Euskadin ikusi ahal izateko.

Donostiako Eskola Bidea izenez ezagutzen den proiektua 2003an egindako lehen Entzunaldi Publikoaren testuinguruan sortu zen. Entzunaldi horretan, unean uneko korporazioari haurrek ematen dioten hiriko mugikortasunari buruzko diagnostikoaren ondoren, hirian mugikortasunari buruzko proiektu bat ezartzea proposatzen da, haurren ikuspegitik. Edukiak, helburuak eta jarduteko moduak diseinatzeko, hainbat esperientziaren iturrietatik edaten da. Europako beste herrialde batzuetan ere badaude zenbait eredu, batez ere hirietako iraunkortasunarekin zerikusia dutenak, halaber, hiriek gai horietan eskaintzen dituzten gabezia eta zailtasunetan haurren ikuspegia txertatzearena ere. Hori dela eta, hainbat esperientzia kontuan hartzen dira, adibidez, F. Tonucciren "La ciudad de los niños". Haurrentzat izateaz gain, benetako inspirazioa da guretzat, baita gaur azal dutako esperientzientzat ere, haurren autonomiaren garrantziari dagokionez. Hala ere, beste zeharkako ikuspegi batzuetatik ere gehitu dizkiogu zenbait esperientzia, hala nola Agenda 2030 eta abar.

Horrela, Donostiako herritarren beharrianekin eta elkarlanarekin batera pixkanaka eboluzionatuz joan den proiektua jarri da abian. Hasiera batean, Eskola Bideak partzela akademikoago bat ukitzen du Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako proiektuetan toki bat bilatuz, hala nola, irakasleen prestakuntza osatu eta, aldi berean, ikasleen etxeko eta eskolako ibilbideetako mugikortasun-arazoei buruzko diagnostikoak jasotzera bideratutako zenbait jarduera diseinatuz.

Horrela, ikastetxeen eta Udaleko Mugikortasun Departamentuaren arteko komunikazio-lerro zuzen eta iraunkor garrantzitsu bat aktibatzen da, adingabeentzako bide-segurtasuna sendotzeko. Aldi honetan, proiekturik hezitzaileena gehitzen zaio proiektuari, hiri osoko ikastetxe askoren konplizitatearekin. Izan ere, ikastetxeek beren ICPen (Ikastetxearen Curriculum Proiektua) barruan sartzen dute Eskola Bidea, eta horrek bide horretan jarraitzea ahalbidetzen du.

Proiektuaren garapen-puntu honetan 2003. eta 2008. urteen artean "Aztertu kalea, imajinatu hiria!" edo "Adi, kotxea dator!" ekimenak jartzen dira abian, eta ikastetxe ugari apuntatzen dira bertan, Ingurunea Ezagutzeko jarduerak diren aldetik, haurren ikuspegia hiriaren egoeran txertatzen laguntzen digutenak. Mugikortasunean parte hartzearen ikuspegia, zerbitzuaren ardatz gisa, Eskola Bideko gure proiektuan ere islatzen da, hainbat bidetatik; izan ere, aldaketa-

beharrak detektatu ondoren, gainerako herritarrek bezala, haurrek eskaerak eta iradokizunak izapidetu eta horiei erantzuten diete, eta adingabeen eta beren hiriko kudeaketa-organoen arteko komunikazioa sustatzen da.

Esate baterako, haurren eskaeren ondoriozko lehen esku-hartzeak egiten dira. Esku hartze hauek espaloi zabalagoetan islatzen dira, edota ikastetxeetarako sarbideetan plaza txikiak diseinatzen, semaforo-faseetan doikuntzak egiten,... ibilgailu-fluxuei lehentasuna emateko. Gainera, oinezkoen eta bizikleta erabiltzaileen beharretara egokitzen dira, batez ere eskola-ordutegiak kontuan hartuta.

3.2. EUROPAKO PROIEKTUEN ERAGIN POSITIBOA ESKOLA-MUGIKORTASUNEAN

CIVITAS ekimena Europako hiri-eremuetan mugikortasun iraunkorra sustatzeko diseinatu zen programa nagusia daukagu. Bere helburu nagusia garraibide iraunkorra goetara aldatzeko modua lortzea da.

Hirugarren edizioan (CIVITAS-Plus), Donostia hautatu zuten CIVITAS-ARCHIMEDES proiektuaren buru izateko. Proiektu horretan, ahaleginak batuko ditu beste bost hirirekin batera, mugikortasunean eraginkortasun handiagoko jarraibideetarako aurrera egiteko. 2008tik 2012ra bitartean, Donostia aukeratu zuten, beste bost hirirekin batera Aalborg (Danimarka), Brighton and Hove (Erresuma Batua), Iasi (Errumania), Monza (Italia) eta Ústí nad Labem (Txekia), CIVITAS Archimedes proiektuaren esparruan, mugikortasun iraunkorreko ibilbidea hobetzeko, eta, arlo horretan, zenbait neurri lantzen dira, eredu bezela, hiri-garraioan erregai garbia sartzeko berrikuntza, mugikortasun-plan pertsonalizatuak, Car Sharing sistemak ezartzea edo School Travel Plans-en bidez eskolara mugitzeko planak (Eskola Bidetik), hain zuzen ere.




Beraz, trafikoaren eta mugikortasunaren kudeaketan neurri bigunek deiturikoak, eskola-bidea barne, eragin handia izango dute Europa osoan, mugikortasun-ohiturak eraldatzeko bide gisa.


3.3. DONOSTIAKO ESKOLA-MUGIKORTASUNAREN DIAGNOSIA


2022-2023 ikasturtean, Donostiako zenbait ikastetxeetan mugikortasunari buruzko inkesta bat egin da (online), batez ere, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan. Jasotako 1747 erantzunetatik hauek dira ateratako daturik esanguratsuenak. Grafiko hauek inkestatutako pertsonen erradiografia bat egiten laguntzen digute.

PARTE-HARTZAILEAK GENEROAREN ARABERA



EMAITZA GUZTIAK (%)




**HEZKUNTZA-MAILA
(IKASLEAK + IRAKASLEAK)****IKASTETXE MOTA:****LEHEN HEZKUNTZA****DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH)**


Banaketa modalari dagokionez lortutako datuek, honako hau isladatzen dute, inkestatutako pertsonen % 50ek egunero egiten dituzte ikastetxera joan-etorriak oinez, % 25ek garraio kolektiboan, eskola-garraioa, DBUS-EZ eta beste garraiobide publiko batzuk batuta, eta % 20k autoz. Bizikletak % 4 suposatzen du eta motorrak % 1.

JOATEKO norabidean dauden modu aktiboak (oinetz + bizikletaz) batuz gero, desplazamenduen % 54 lortzen dira, eta kopuru horri garraio kolektiboak gehitzen badizkiogu (bai DBUS-EZ, bai eskola-garraioa), % 79ra iristen dira, eta garraiobide ez hain iraunkorrak (autoa eta motorra), berriz, % 21era.

ITZULERARI dagokionez, JOATEKO noranzkoarekiko aldea are gehiago handituko da; izan ere, modu aktiboen datuak (oinetz + bizikleta) % 55 eta 53 artean igo dira, eta garraio publikoa eta/edo garraio diskrezionala eskatu ahalakoa gehituz gero, ia % 8ra iristen da (% 79 eta % 37, hurrenez hurren).


ZENTRORA JOATEKO ERABILTZEN DEN GARRAIO MOTA (JOAN)

ZENTROTIK ETXERA BUELTATZEKO ERABILTZEN DEN GARRAIO MOTA (ETORRI)




Ingurumenaren ikuspegitik eraginkortasun gutxien duten garraio-motak, motorra edo autoa dira, % 21 edo % 18.46 baino ez dira (eskola-inguruneetako egunaren arabera), baina eragin handia izan dezakete bidearen gainerako erabiltzaileen segurtasunean.

GARRAIO MOTA GENEROAREN ARABERA




Emakumeak dira garraiobide guztietan nagusi (motorrean izan ezik), inkestan emakumeek gehiago parte hartzen dutelako eta emakumeak direlako zaintza-lanetan gehien aritzen direnak. Datuek baieztatzen dute, emakumeek, gehien bat, ikasketak egiteko, eskolara edo institutura joateko oinez joateko modua aukeratzen dutela.



Banaketa modalaren epigrafean adierazi zen bezala, oinezko modua erabiltzen da gehien ikastetxera joateko eta itzultzeko. Hezkuntza-mailari erreparatzen badiogu, Lehen Hezkuntzan askoz gehiago dira oinez mugitzen direnak Bigarren Hezkuntzan baino. Datu hori Lehen Hezkuntzarekin alderatuta erreferentziatzeko Institutuarekiko dagoen distantzia handiagoari egotzi dakioke; izan ere, Bigarren Hezkuntzan garraio kolektiboaren erabilaren presentzia handiagoa da oro har.



Bizikletaren kasuan, erabilera bikoiztu egiten da Lehen Hezkuntzatik (23) Bigarren Hezkuntzara (40).




Oinezkoen joan-etorrien kasuan, azpimarratzekoa da beste ikasle batzuekin batera joan-etorriak modu autonomoan egiten dituzten ikasleen balio altua.


Ikastetxe motaren arabera haurren garraiatzeko moduari dagokionez, alde batetik, esan beharra dago, oinez ibiltzeko modua gehiago erabiltzen dela ikastetxe publikoetan.

Bestalde, ibilgailu pribatuaren erabilera eta eskola-garraioa areagotu egiten dira itunpeko ikastetxeetan. Gainera, autoa da itunpeko ikastetxeetako erabiltzaileek gehien aukeratzen duten garraio-mota, ikastetxe publikoekin alderatuta.





IBILBIDEAREN LUZEERA ETA GARRAIO MOTAREN ARTEKO ERLAZIOA (IKASLEAK)



OINEZ



BIZIKLETAZ



DBUS-EZ



ESKOLA-GARRAIOA



GARRAIO PUBLIKO BATEN BIDEZ




MOTORREZ



AUTOMOBILEZ

Bestalde, etxetik ikastetxera iristeko behar den denborari dagokionez, dagoen distantzia aztertzen badugu, ikusiko dugu ikasleen kasuan guztiz desberdin jokatzeko dutela irakasleekin alderatuta. Ikasleen kasuan, argi dago beharrezkoa den denbora eta distantzia erabakigarriak direla garraiobidea erabakitzeko orduan, eta aukera nagusia oinez ibiltzea dela, 20 minutura arteko joan-etorrietan.


IBILBIDEAREN LUZEERA ETA GARRAIO MOTAREN ARTEKO ERLAZIOA (IRAKASLEAK)



Irakasleen kasuan, dinamika desberdina dela ikusten da. Hogei minutuko tartea erabakigarria da garraibide bat edo bestea aukeratzeko. Balio horretatik beheragoko joan-etorrien kasuan, oinezko modua aukeratu da, gainerako moduekin alderatuta, alde handiarekin, hain zuzen. 10 eta 20 minutu bitartean, bizikletaren aukera esanguratsua da. 20 minutu edo gehiagoko ibilbidea bada, autoa aukeratzen da nabarmen.

Horri dagokionez, esan dezakegu ikastetxea aukeratzeak eragin zuzena duela haurren joan-etorrietan, eta ondorioz, gero haur horien familian aukeratu den garraibidean. Baita eskola publikoak, ikasleen distantzia txikiagoagatik, haurren joan-etorri laburragoak eta autonomoagoak errazten dituela esan genezake.

MUGIKORTASUN DESIRATUA



Nahi den mugikortasuna ez da nahitaez benetakoa, hau da, erreala. Elkarriketatuak, ahal izanez gero, aukeratuko luketen mugikortasun idealari egiten dio erreferentzia. Eta alde horretatik, oso pozgarria da egiaztatzea ikasleek nabarmen nahiago duten modua oinez ibiltzea dela, eta ondoren bizikleta. Joan-etorriak auto-familiar batean egiten direnean, erantzunen arabera, esan dezakegu, haurrak nahiago dutela ikaskideekin batera joan, oinez edo bizikletaz.

Irakasleentzat eta irakasle ez diren langileentzat ere nahiko modu adierazgarria da. Erantzun horiek ate bat irekitzen dute honelako galderak aztertzeko:

Zer gertatu beharko litzateke aukeratutako mugikortasunetik (erreala) mugikortasun desiratura pasatzeko, testuinguru horretan?

Zer beste aukera baztertu ditut (halakorik badago) aukeratutako eta nahi dudana mugikortasuna hurbil dadin?

Nork lagun diezadake nire mugikortasunean aldaketa hori egin ahal izan dezadan? (Baldin badago laguntzeko moduko zerbait edo norbait)

Non oinarritu naiteke nire Ikastola/Institutua/Udala-n aldaketa lortzeko?

Donostiako eskola-mugikortasunaren diagnostikoari buruzko azken ondorio gisa, honako hau laburbil dezakegu:

1.- Gehiengo handi batean, datuak oinezko garraio-motan nabarmentzen dira, banaketa modalean, modu aktiboen guztizkoa (oinetz eta bizikletaz) % 54ra iritsiz, eta gainerako modu jasangarriak (garraio kolektiboa) batuz gero ia % 80ra. Genero-joerari erreparatuta, ikusten da oraindik ere modu aktibo hori handiagoa dela emakumeen artean gizonen artean baino.

2.- Lotura zuzena dago ikastetxetik gertu egotearen eta ikastetxera iristeko aukeratzen den garraio motaren artean. Horrela, alderantziz proportzionala den erlazioa dago oinez egindako joan-etorrien eta 20 minututik gorako denboraren artean.

3.- Aurreko ondorioaren arabera, korrelazio bat dago ikastetxe motaren artean, izaera publiko edo pribatuaren arabera. Ikastetxe publikoak dira oinez edo bizikletaz egiten diren joan-etorrien tasa handiena dutenak, aldiz, itunpeko irakas-kuntzaren kasuan presentzia handiagoa dute motordun garraiobideek.

4.- Oinez egindako joan-etorrien kasuan, % 70 baino gehiago beraien artean izaten dira, hala nola, helduen tutoretza-pean egiten diren ibilbideen balioak txikiagoak direlarik.

5.- Ikasketak (unibertsitatez kanpokoak) direla-eta egiten diren joan-etorriak, ia % 80an modu jasangarrietan egiten direla ondoriozta daiteke, eta gainerako % 20a ibilgailu pribatuan.

Itxura denez, datuen arabera, etxe/eskola/institutu ibilbide gehienak jasangarriak badira, geure buruari galdetu behar diogu: Zergatik ezarri behar da, orduan, Ikastoletan eta Institutuetan Mugikortasun Iraunkorrerako Ekintza Plan bat?

Zeituk dira eraginkortasun gutxien duten moduek zentroen eta institutuen inguruneetan sortzen dituzten inpaktuak?

Jabetzen al gara zer-nolako arriskuak dakartzaten?

Nola ezar ditzakegu ondorioak arintzeko neurri zuzentzaileak?

Nola jar daitezke abian beste hiri batzuetan balioztatutako jardunbide egokiak, hain eraginkorrek ez diren garraiobideen ondorioak arintzeko?

Eta, batez ere, zein da eskola-mugikortasunaren kudeaketan inplikaturako alderdi bakoitzak egin behar duen lana?

3.4. INDARREKO LEGE-ESPARRUA/LEGEDIA

Eskola Mugikortasunaren Ekintza Plana garatzen den indarreko lege-testuingurua oso zabala da, eta maila desberdineko araudia jasotzen du.

Trafiko eta Bide Segurtasuneko Kodeak berak arau ugari biltzen ditu, eta, funtsean, berez sortzen dute eskola-inguru-neak arautzeko behar besteko lege-esparru esplizitua, eta oinezkoak eta txirrindulariak babesten ditu, bidearen erabiltzaile ahulenak diren aldetik.

Horri beste lege-esparru hau gehitu zaio:

7/2021 Legea, maiatzaren 20koa, klima-alaketari eta trantsizio energetikoari buruzkoa.

2. artikuluan, oinarrizko printzipio gisa jasotzen da: "hala nola garapen jasangarria eta ekonomia espainiarra, hau da, berotegi-efektuko gasen isurpenik gabeko eredu sozioekonomikoa lortzea, edo ingurumena babestea, biodibertsitatea babestea eta «kutsatzen duenak ordaindu egiten du» printzipioa aplikatzea."

Berariaz,

f) Osasun publikoa babestea eta sustatzea.

g) Irisgarritasun unibertsala.

h) Kolektibo kalteberak babestea, haurrak bereziki kontuan hartuta.

Bestalde, **Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen** helburua da, energia-politikaren orientazio orokorrearekin bat etorriz, jasangarritasun energetikoaren arau-zutabeak ezartzea euskal administrazio publikoen eta sektore pribatuaren eremuetan, eta, horretarako, batzuek eta besteek bete behar dituzten oinarritzko behar eta betebeharrak artikulatzea. Behar eta betebeharrak horiek, funtsean, energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko neurriak bultzatu eta energia berriztagarriak sustatzera eta ezartzera bideratuta daude.

5. artikuluan **helburu** nagusiei buruz hitz egiten du, eta horien artean daude, besteak beste, jatorri fosil eta nuklearreko energiaren ekoizpena kontsumo nulura iritsi arte pixkanaka bereiztea, mugikortasun arrazionalago eta iraunkorrago bat bultzatu eta sustatzea, motorizatu gabeko desplazamendu-aukerak eta ordezkio erregaiak erabiltzen dituzten garraiobideak barnean hartuta, edo berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea, batez ere partikulek eta nitrogeno oxidoek eragindako kutsadurari dagokionez, energiaren erabileran aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko neurrien ondorioz.

23. artikuluan, ibilgailuen zirkulazioaren murrizketak ezartzen ditu.

- 1.– Energiaren erabilera eta berotegi-efektuko gasen emisioak gehiegi areagotzea edo atmosferako airearen kalitatea hondatzea saihesteko, udalerriek debekatu edo mugatu egin ahal izango dute beren udalerriko zenbait eremutara sartzea ordezkio erregaiak erabiltzen ez dituzten ibilgailuei edo propulsioteknologia dela-eta isurketa-maila jakin batzuk gainditzen dituztenei.
- 2.– Udalerriek errei alternatiboak prestatu ahal izango dituzte, erregai alternatiboak erabiltzen dituzten ibilgailuak zirkulatzeko, halaber, hauentzat aparkatzeko guneak erreserbatu ahal izango dituzte, eta eremu publikoetan edo udal-aparkalekuetan aparkatzeko prezioan murrizketak ezarri ahal izango dituzte.
- 3.– Udalerriek oinezkoentzako guneak eta bizikleta-erreiak lehenetsi beharko dituzte, ibilgailu motordunen zirkulaziorako erreserbatutako guneen aurrean.
- 4.– Administrazioek, beren antolaketa-eskumenen esparruan, garraio publikoaren erabilera edo plantillen arteko mugikortasun partekatua sustatzeko neurriak hartuko dituzte.

Eta haratago doa, 24. artikuluan ezartzen baitu mugikortasun-planek nolakoak izan behar duten.

2.– Hiri Mugikortasuneko Planek honako alderdi hauek jasoko dituzte, besteak beste:

32. artikulua. – Lantokietako mugikortasun-planak.

Lege hau garatzeko emandako xedapenetan ezarritakoaren arabera, atal honetan aipatzen diren establezimenduek lantokira joateko garraio-plan bat eduki beharko dute, beti ere, txanda bakoitzean 100 langile baino gehiagok lan egiten duten lantokietan. Plan horretan, garraio publikoak edo titulartasun pribatuko ibilgailu alternatiboak erabili ahal izateko neurriak jaso beharko dira. Txanda bakoitzeko 100 pertsona izango dira zentroan lan egiten duten guztiak, bai zuzeneko kontratazio-erregimenean lan egiten dutenak, bai autonomoak edo azpikontratutako enpresetakoak.

35. artikulua. – Aplikazio-eremua.

1. – Honako jarduera hauetakoren bat garatzen duten establezimendu pribatuak bete beharko dituzte lege honetan jasotako betebeharrak, Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalaren (EJSN-2009) arabera: – G taldea: handizkako eta txikizkako merkataritza; motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa; I taldea: ostalaritza; J taldea: informazioa eta komunikazioak. – K taldea: finantza- eta aseguru-jarduerak. – L taldea: higiezin-jarduerak. – M taldea: jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak. – P taldea: hezkuntza. – Q taldea: osasun- eta gizarte-zerbitzuetako jarduerak. – R taldea: arte-, jolas- eta entretenimendu-jarduerak. – S taldea: beste zerbitzu batzuk.

Horregatik guztiagatik, esan dezakegu ikastetxeak edo institutuak direla, ikasleen erakarpen-maila handia dutenez, eta haietara joaten diren langileen kopurua handia denez, beren Mugikortasun Plana diseinatu behar dutenak hura kudeatzen laguntzeko.

Udal Erreferentzia Esparrua

*Amaitzeko, udal mailan, **Hiri Mugikortasun Iraunkorraren Plana. Donostia -San Sebastian. 2008-2024 (PMUS).** Bertan jasotzen da zein diren hiriko mugikortasunaren helburu nagusiak indarrean egongo den laurtekorako, eta helburu nagusitzat jasotzen da Donostiako herritarren mugikortasun-jokabidea azpimarratzea.*

Horrela, 6. puntuan jasotzen denez, mugikortasunaren kudeaketa deritzonak kolektibo espezifikoen mugikortasun-jarraibideak edo jokabideak aldatzea helburu duten neurri-paketei eragiten die. Neurri horiek sistematikoki aplikatzen dira Europako beste herrialde batzuetan, eta langileen, ikasleen eta haien senideen, gazteen eta abarren kolektiboetan mugikortasun-aldaketak aztertzea, informatzea, komunikatzea eta parte hartzea dute oinarri.

Era berean, emakumeek eta gizonek mugikortasun-ohitura eta jarraibide desberdinei erantzuten diete, eta horiek kontuan hartu beharko dira mugikortasuna kudeatzeko planetan.

MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN LEGEAREN AURREPROIEKTUA

(Ministroen Kontseiluak Mugikortasun Jasangarriaren Lege Proiektua onartu eta Gorteetara bidali du 2022ko abenduaren 13ko bileran. Ekintza Plan hau argitaratzen den unean testua Parlamentuan izapidetzen ari da).

22. artikulua. Herritarrei mugikortasun jasangarriaren inguruko prestakuntza ematea.

1. Espainiako hezkuntza-sistemak eta lanbide-heziketako sistemak gizartea mugikortasun aktibo, seguru, osasungarri eta iraunkorraren kultura garatzen eta ezartzen inplikatzeko sustatuko dute, horretarako beharrezkoak diren jarduera pertsonalen eta sozialen ezagutza indartuz.

2. Oinarrizko irakaskuntzaren eta Batxilergoaren curriculumean, mugikortasun iraunkorrari, bide-hezkuntzari eta garraibideekiko bizikidetzari eta horiek segurtasun-baldintzetan erabiltzeari lotutako jakintzak sartuko dira, eta beharrezkoa den erantzukizun pertsonala, soziala eta ingurumenekoa eskuratzea sustatuko da.

3. Hezkuntza-administrazioek mugikortasun iraunkorraren tratamendua ezarriko dute hezkuntza-sistema osatzen duten unibertsitatez kanpoko irakaskuntzen curriculumean, mugikortasun aktibo, seguru, osasungarri eta iraunkorraren printzipio eta helburuetan hezteko beharrezkoak diren elementuak barne.

4. Hezkuntza-administrazioek, halaber, eskola-ingurune seguruak, osasungarriak eta jasangarriak eta eskola-bideak sortzea bermatuko dute, mugikortasunaren arloan eskumena duten administrazioekin, erakundeekin eta inguruko erakundeekin koordinatuta.

5. Era berean, unibertsitatearen eta lanbide-heziketaren esparruan, hezkuntza-administrazioek mugikortasun jasangarriaren, digitalizazioaren, segurtasunaren eta garraioaren multimodalitatearen arloko prestakuntza sustatuko dute, eta ikasgai horien tratamendua berrikustea sustatuko dute tituluak eta bestelako ziurtagiri ofizialak lortzera bideratutako ikasketa-planetan, baldin eta horiei dagozkien eskumenen arabera koherentea bada.

6. Etapa bakoitzean mugikortasun eta garraio jasangarriaren arloan irakasle-lanak egin behar dituzten irakasleen hasierako prestakuntza egokia bermatuko da. Era berean, hezkuntza-administrazioek irakasleak etengabe prestatzeko programak bultzatuko dituzte, gai horri buruzko prestakuntza espezifikoa jasotzeko eta edukiak aldian-aldian berrikusten direla bermatzeko. Era berean, irakasle ez diren langileentzako, zuzendaritza-taldeentzako eta hezkuntza-komunitatearentzako prestakuntza-ekintzak sustatuko dira, arreta berezia jarritz ikasleen eta familien ordezkariak eskola- eta gizarte-kontseiluetan.

28. artikulua. Hiri-eremuko mugikortasun-baliabideen sistemaren hierarkia.

1. Mugikortasunaren printzipio gidariak betetzeko eta ingurumenean eta osasunean dituen ondorioak kontuan hartuta, hiri-eremuan, herri-administrazioek hiri-inguruneetan eta metropoli-inguruneetan mugikortasun-bitartekoak eta moduak bultzatu eta sustatzen direla zainduko dute, ordena honetan:

a) Mugikortasun aktiboa, batez ere oinezko mugikortasuna, bizikletaz mugitzea eta desgaitasuna duten pertsonen mugikortasuna, baldin eta oinezkoen eremuetatik zirkulatzen badute gurgil-aulkian, motorrarekin edo motorrik gabe, edo baimendutako antzeko aparatuetan, giza pasabidearen abiaduran.

b) Garraio publiko kolektiboa.

c) Okupazio handiko mugikortasun-eskemak, kanpo-efektuak murrizteari, espazio publikoa okupatzeari edo bestelakoei dagokionez onura dakartenak.

d) Ibilgailu pribatua, beti lehentasuna emanez kutsatzaile gutxiago eta berotegi-efektuko gasak isurtzen dituzten teknologiei, bai eta espazio publikoa gutxien okupatzen duten ibilgailuei ere.

2. Salgaien hiri-garraioari dagokionez, herri-administrazioek kanpo-eragin negatiboen murrizketa sustatuko dute, zero emisioko ibilgailuak, ziklogia eta banaketak optimizatzeko irtenbideak indartuz.

3.5. HIRIKO ESKOLA-MUGIKORTASUNAREN TESTUINGURUAN EZARRITAKO PROGRAMAK ETA EKINTZAK

Hiriko eskola-mugikortasunari heltzeko erronkak hainbat etapa igaro ditu 2003tik gaur egun arte.


Partaidetzaren eremutik sortu da, Audientzia Publikoaren testuinguruan. Halaber, hamarkada bat baino gehiago eman da **Eskolako Agenda 21**etik, hiriko ikastetxe eta institutuen % 90ean ezarrita, gaur egun 2030 Agenda bihurtuta.

Ingurumen Siletik, Udalaren barruan, Cristina Enea Fundazioak baliabide propioak sortu ditu ikastetxeen barruko eskola-mugikortasunari heltzeko, bai barrutik, bai ingurune hurbilenarekin duen harremanari dagokionez. “**Caperucita, no camina sola**” programa, eta haren materialak dira horren adibide argia.

Eskola Bidea programa Mugikortasun Departamentuaren beste tresna bat da. Antolamendu-, trafiko-, erregulazio- edo eragiketa-arloak “Hard” aintzat hartutako politika publikoez arduratzen badira ere (politika gogor eta bigunen arteko banaketa anglosaxoiaren arabera), Eskola Bidea mugikortasun-ohiturei buruzko prestakuntza, sentsibilizazio eta, oro har, jarreraren aldaketara bideratutako tresnen artean dago.

Eskola-bidea ezartzeko sortutako tresnak, hasiera batean, mugikortasuna eta haren alderdi anitzak curriculum-eremura hurbiltzean oinarritzen dira, ikastetxe eta institutuetan, eta, bereziki, ikasleekin, erraz ulertu eta iraunkortasun-irizpideen arabera aztertu ahal izateko. Horrela diseinatzen dira, adibidez, **Aztertu kalea, Imajinatu hiria!** edo **Adi, kotxea dator!** Irakasleek erraz ezar eta erreplika ditzaten.





Ezarpen-maila altuago batean, eta komunitateak parte har dezan eskatuz, **Goazen oinez eskolara!** programak ikasleen ibilbideak diseinatu, aztertu, lagundu eta ikusarazten ditu, oinez lurrerako esku-hartze batean, gainerako hezkuntza-komunitatearekiko konplizitatean. Esku-hartze horretan, haurrek hiriaz gozatzeko dituzten eskubideak eta beharrak agertu, ospatu eta zabaltzen dira, hiri hurbilago, atseginago, osasuntsuago eta seguruago batean joan-etorri autonomo eta jasangarriak egiteko.

Goazen oinez eskolara! eskolara oinez eta heldurik gabe joateko ideia indartzeko diseinatzen bada, eta "Safe routes to school" eredutzat hartzen badira ere, 2005ean Oinbusa ekimena planteatzen da, Bruselako Pedibusa eredutzat hartuz. Kasu honek, haurren mugikortasunari heltzen dio; haur horiek familien eta/edo bizilagunen laguntzarekin egiten dituzte ibilbideak, autobus ibiltari bat balira bezala, ikastetxerako bidean dauden ikasleak bilduz.

Azken esku-hartze horretatik **BiziBus**era jauzi txiki bat baino ez zegoen, bizikleta eskola-ibilbideetan sartzeko, 2014an eman zen. **OinBus**aren kasuan bezala, Bizibusak eskolara modu dibertigarrian iristea errazten digu, denok batera bizikletaz.

Horietako edozein ekintza abian jartzeko, ikastetxeen eta institutuen eskura jartzen dira urte hauetan sortu diren prozedurak, inplementatzeko lagungarri izan daitezkeelakoan.

3.6. HIRIAN EGIN DAITEZKEEN ESKU-HARTZE BATZUK*

Eskola-mugikortasunaren esparruan, aldi berean, lan komunitarioarekin batera, hiri-ingurunearen eraldaketa fisikoa dago, zuzenean hiri irisgarriago eta seguruago batekin kontrastean. Jarraian, dagoeneko ezarrita dauden adibide batzuk deskribatzen dira.

AZPIEGITURETAN ESKU HARTZEA. Adibideak

OINEZKOENTZAKO IRISGARRITASUN GUNE BERMATUA DISEINATZEA, IBILGAILURIK GABEA
IKASBIDE IKASTOLA

Bi aukera ikusi ziren, edo sarrerako atearen ondoko kalearen zatia oinezkoentzat egitea edo espaloia oso modu garrantzitsuan zabaltzea, ibilgailuen zirkulaziotik bereizita.

✓ ABANTAILAK	✗ ERAGOZPENAK
Adingabeen eta haien familien segurtasuna erabatekoa da, sartzeko eta irteteko uneetan haurrak autorik gabeko gune batera sartzen baitira.	Esku-hartzearen kostu ekonomikoa altua da.
Adingabeak harrapatzeko aukerak nabarmen egin du behera.	
Irisgarritasuna erabatekoa da haurren aulkientzat eta mugikortasun urriko pertsonentzat.	
Ikuspen handia.	



OZTOPOAK KENTZEA. IKUSPENA INDARTZEA
JAKINTZA IKASTOLA (Erregezainen kalea)

Ikuspena bermatzea. Bolumen handiko elementuak ezabatzea. Edukiontzia eta elementu handiak kentzea oinezkoen pasabide baten aurretik, martxaren noranzkoan.

✓ ABANTAILAK	✗ ERAGOZPENAK
Ikasleen tamaina dela eta, elementu horiek kentzeak nabarmen hobetzen du haien ikuspena eta gidariena (trafikoentzat aldi berean ikusiak izatea).	
Harrapatzeko arriskua nabarmen murrizten da.	
Oso erraza da aplikatzen.	
Ez du kostu ekonomikorik, edukiontzia tokiz aldatzea besterik ez da egin behar.	



OINEZKOEN PASABIDE SEGURUAK HAURRESKOLA URBIETA-URDANETAREN IRUDIA

Pixkanaka-pixkanaka, oinezkoentzako pasagunearen aurreko 10 metro libre ezartzea hiriko ikastetxe guztietan (bidearen errealitate espezifikoari egokituta). Bidearen 30 km/h-ko abiadura ezartzea eta oinezkoentzako pasabideak igotzea.

✓ ABANTAILAK	✗ ERAGOZPENAK
Istripuak murrizten ditu	Ibilgailu pribatuak lurrazalean aparkatzeko aukera galtzen dute
Kostu ekonomiko txikia	
Oinezkoen eta gidarien ikuspena hobetzea	
Motorren eta bizikleten aparkalekua handitzen da	



SEMAFORO-FASEAK OPTIMIZATZEA, BATEZ ERE LEHENTASUNEZKO ORDUTEGI-TARTEETAN ZUHAIZTI IKASTOLA

Semaforo gorriko fase luzeekin, oinezkoak urduritu egiten dira eta gorriz zeharkatzen dute. Ohiko kausa da harrapatze-egoeretan. Ikastetxeetan sartzeko eta irteteko uneetan oinezkoei berdez eskainitako segundoak orekatuz, semaforoak gehiago errespetatuko direla bermatzen da, eta, gainera, bidezainen artean (gidariak eta oinezkoak) denbora gehiago banatuko da.

✓ ABANTAILAK	✗ ERAGOZPENAK
Diziplina ezaren mailak behera egin du gorriz dauden oinezkoen faseko bidegurutzetan	
Harrapatzeko arriskua murrizten du	
Garraiobidearen araberako banaketa orekatuagoa bermatzen du, eta ez du oinezko garraio-modua zigortzen	
Ez du kostu ekonomikorik	



IKASTETXEETAKO ATEAN BIZIKLETENTZAT APARKALEKUAK JARTZEA
PEÑAFLOIDA INSTITUTUA

✓ ABANTAILAK	✗ ERAGOZPENAK
Bizikletak ikastetxeko atean edo handik gertu aparkatzeak erraztu egiten du irakasleek eta ikasleek ez ezik, auzoko biztanleek ere hauek erabiltzea, oro har, zerbitzu publiko gisa	Bizikleta partikularra alde batera uztea
Kostu txikia	
Leku gutxi behar du	
Bizikletaren erabilera ikusarazten du	
Instalatzeko erraza	
Ez du mantentze-lanik	
Estalitako edo estali gabeko eta itxitako edo itxi gabeko bizikleta-aparkalekuen bertsioak aukera daitezke	



OINEZKOEN IBILBIDEA MARKATZEA ETA IKUSARAZTEA. ESKOLA BIDEA LA SALLE

Kaleko sekzioak gutxieneko irisgarritasun eta segurtasun-bermerik ematen ez duen oinezkoentzako ibilbideetan, oinezkoek erabiltzeko galtzada-zati bat pintatu eta bereizteak sarbidea bermatzen du.

✓ ABANTAILAK	✗ ERAGOZPENAK
Koste baxua	Lurzorua lehorra egon behar da neurri hau aplikatu ahal izateko
Azkar aplikatzen da	
Oinezkoentzako espazio bat lortzeko oso eraginkorra da, aldez aurretik ez zegoena	
Oinezkoen espazioa ikusarazten du trafikoaren aurrean	
Edozein zoladuratarako da egingarria	
Trafikoa baretzeko efektua du	
Irristagaitza da	



IKASTETXEEN PERIMETROAN 30 ETA 20 ZONAK DISEINATZEA SAN JOSE ASILO IKASTETXEA

Sarrera eta irteera nagusiak dituen eremu bat mugatzea, norabide bakarrekoa eta 30 edo 20 km/h-ko abiadurakoak dituen, ikastetxea ardatz hartuta.

(Neurri horrek ikastetxeetako atean abiadura baxuak mantentzen lagun diezaguke, azaroaren 10eko 970/2020 Errege Dekretuak tartea zabaltzeko aukera ematen duen hiriko eremuetan).

✓ ABANTAILAK	✗ ERAGOZPENAK
Zirkulazio-mailak behera egin du zonaldean	Eremurako sarbidearen gaineko gutxieneko plangintza egitea da, ibilgailu motordunen ibilbidea, norabideak eta trafikoaren noranzkoa bermatuz
Eskolarako joan-etorrietan familiei ibilgailu pribatuan joan-etorriak egitea galarazten die	Abiadura-seinaleztapena une oro oso agerian egotea eskatzen du
Istripu aukerak eta gertakari potentzial baten ondorioak minimizatzen ditu	
Auzoan bizikleta erabiltzea errazten du, baita lanera txirrinduan joatea ere	



IRAKASLEEN ETA GURASOEN INPLIKAZIOA ESKOLA-BIDEAN
ARANTZAZUKO AMA (MARTUTENE)

✓ ABANTAILAK	✗ ERAGOZPENAK
Irakasleen kolektiboak adingabearen babesaren mezua indartzen du	
Talde horiek, elkarrekin lan eginez, ikasleen segurtasun-lehentasunak norbanakoen interesen gainetik jartzen dituzte	
Trenbidearen eguneroko erabilerari buruzko informazio oso baliotsuak eskaintzen dizkiote teknikariari	
Teknikarien neurriak indartu egiten dira, ikastetxearen barrutik ikasleen familiei helaraz dakiekeen mezutik abiatuta	



ESKOLA-MUGIKORTASUNARI BURUZKO LAN-MAHAIA SORTZEA
INTXAURRONDOKO IKASTOLA

✓ ABANTAILAK	X ERAGOZPENAK
Harrapatzeko arriskua murrizten da	Lan neketsua da
Herritar gehiago arduratzen dira inguruko/auzoko mugikortasunarekin	
Arrisku-egoerak objektibatzen dira	
Nahi ez diren baldintzak eta arrisku-baldintzak aztertzen dira, eta jokabide hori sozialki arintzen da	



ESPERIENTZIA PILOTUAK ANTOLATZEA OINEZ GOAZEN, OINEZ ESKOLARA
JAKINTZA IKASTOLA

✓ ABANTAILAK	✗ ERAGOZPENAK
Beharrezkoa da hainbat erakunde eta organismok koor- dinatuta lan egitea	Antolatzeko batez besteko denbora behar da
Ikastetxeko sarrerako atearen segurtasuna hobetzen du ikasleentzat	
Senideen ibilgailuak kendu ditu zentroko atean	
Kutsadura atmosferikoa eta akustikoa murrizten du	
Inguruko trafikoa hobetzen du	



BOLUNTARIOTZA BIDEGURUTZETAN ZUHAIZTI IKASTETXEA

Zailenak izan daitezkeen bidegurutzeetan, eskolarako ibilbidean, boluntarioak egoteak oinezkoen ikuspena indartzen du trafikoaren aurrean.

✓ ABANTAILAK	✗ ERAGOZPENAK
Oinezkoen presentzia ikusgarriagoa da bidegurutzeetan eta zebrabideetan	
Trafikoa baretzeko efektua	
Motorrik gabeko moduak erabiltzea errazten du, hala nola bizikleta, abiadura gutxitzeagatik	
Ikasleak modu autonomoan joan daitezke oinez eskolara, lagunduta joan beharrik gabe	
Udaltzaingoaren lana osatu eta biderkatu egiten da	



BIZIKLETA MARTXA EDO BIZIKLETADA HIRI OSOKO INSTITUTUAK

Europako mugikortasunaren astearren testuinguruan, urtean behin, bizikleta-martxa bat egiten da, eta bertan hiriko institutuetakoko gazteak dira protagonistak, hiriko zirkuitu baten bidez, 10 kilometrotan zehar hiria modu seguruan zeharkatzen dutenak.

✓ ABANTAILAK	✗ ERAGOZPENAK
Institutura joateko bizikletan modu seguruan ibiltzeko benetako aukera ikusten da	Trafikoa mozten da
Txirrindulari berriek galtzadatik eta bidegorritik ibiltzen ikasten dute	



******(20 urte hauetan Donostian ezarri diren eta atal honetan aipatzen diren esku-hartze batzuk Eusko Jaurlaritzako Herri-zaingo Sailak argitaratutako *Eskola Bidearen Gida Praktiko* hartu dira, eta Euskadi osoko beste batzuekin batera jardunbide egoki gisa aukeratu dira).

KALEEN MOZKETA PUNTUALAK

Covid-19a zela eta, neurri berriak proposatu ziren ikastetxe batzuen inguruan, eta gauzak beste modu batera egitea posible zela ikusi genuen. Kale-mozketa puntualak egin ziren Jakintza ikastolako, Herrera Ikastetxeko, Ikasbide Ikastolako eta Orixe Ikastolako sarbideetan.

Sarbide-kaleak oso desberdinak dira, baina neurri berdinak jarri ziren. Hesi baten bidez, trafikoaren fluxua mugatu zen, ikasleak segurtasun osoz sar zitezkeen ikastetxera.

✓ ABANTAILAK	✗ ERAGOZPENAK
Oinezkoen segurtasuna areagotzen du	Gutxieneko denbora zirkulaziorik gabe
Trafikoa baretzeko efektua	
Ikasleak modu autonomoan eta seguruan irits daitezke	
Zirkulazioaren kutsadura gutxitzen da erdigunetik gertu	
Istripuen probabilitatea ezabatzen da	
Familiak auzoarekin egiten duten ekintza komunitarioa indartzen da	



4. EUROPAKO JARDUNBIDE EGOKIAK IDENTIFIKATZEA

4.1. JARDUNBIDE EGOKIAK IDENTIFIKATZEKO PROZESUA

Jarraian, enpleguaren eta prestakuntzaren esparruan eta, oro har, Europako Gizarte Funtsaren Programa Operatiboen kudeaketaren barruan abian jarritako jarduerak, metodologiak eta tresnak implementatzeko balio diezaguketen jardunbide egokietako batzuk azalduko ditugu, emaitza positiboak izan dituzten eraldaketak sartzeko gaitasuna erakutsi baitute.

Definizio zabala da, eta, haren arabera, jardunbide egokiak ekintza baten modalitatea har dezake, metodologia bat – prozedura, prozesu edo egitura bat sortzea ekar dezake – eta/edo tresna jakin bat, erraz erreplika daitekeena.

- Proiektuan ekarpen positiboa egin dezaketen jardunbide egokiak identifikatu dira. Hauek eskualde-mailan zein Europa mailan hartuko dira kontutan.
- Erabilitako dokumentazioaren ikuspuntutik, fitxa bat egiten da informazio guztiarekin eta proiektu horretako eragile guztiei bidaltzen zaie. Informazio horrekin, eragileak has daitezke informazioa baloratzen eta ikusiko dute hau erakargarria eta interesgarria den. Horrela bada ikastetxera bidali dezakete.
- Beste hiri batzuetako jokabide onei buruzko hainbat azterketa eta ikerketa egiten dira, informazioa lortzeko eta ebaluatzeko asmoarekin, hala nola, urratsez urrats informazio hori nola garatu deskribatu ahal izateko. Horrela, praktika hori aplikatu nahi duen ikastetxeari, errezago egingo zaio ekimena martxan jartzea eskuliburu hau erabiliz.
- Ikusitako praktika askoren artean, interesgarrienak eta egokienak aukeratzen dira, baita ere, gure eremu geografikoa eta bertan dauden ikastetxeak kontuan hartuta, gurerak moldagarrienak direnak.
- Aukeratutako jardunbide egokietatik lortutako ezagutzak barneratu dira Donostiako eskola-mugikortasuneko ekintza-planean.

4.2. BRIGHTON AND HOVE (ERRESUMA BATUA): WALK TO SCHOOL WEEK PEDOMETER

“Walk to school week” kanpaina nazionala da, eta helburua, urte bakoitzeko maiatzean haurrak eta haien familiak eskolara oinez joatea da.

LEHEN HEZKUNTZA: “WOW” ekimena

Ikasleei zuzendutako ekimena da. Bertan, haurrek egunero eskolara nola joaten diren jakinarazten dute, “WOW” bidaien arakatzaille interaktiboa erabiliz. Hilabete horretan modu sostenigarrian desplazatzen badira (oinenez, bizikletaz edo patinetean), astean behin intsignia batekin sarituko dituzte. Erraza da. Burutzen erraza da eta ikasleek ekimen honetan parte hartzea atsegin dute. Urtero, ikasleek diseinatzeko dituzte “WOW” ikurrak, horretarako bereziki antolatutako lehiaketan.

Hiru urrats erraz kontutan hartu behar dira:

- Ikastetxeek beren “WOW Travel Tracker” kontua sortzen dute doako gidarekin.
- Goizero, ikasgelan, haurrek “WOW Travel Trackerren” idazten dute eskolara iristeko jarraitu duten bidea.
- Hilaren amaieran, eskolek intsignia bat ematen diete hilabete horretan irabazi duten ikasleei.

“WOW” proiektuak eskolara modu aktiboan bidaiatzen duten haurrak saritzen ditu. intsignien bitartez. Datorren urteko gaia (2022-2023) hau izango da: **IBILI DENBORAN ZEHAZ.**

Emaizta positiboak: auto-pilaketa murrizten du/ martxa-indizeak /egiaztapenak/eskola-denbora gutxi suposatzen du /kostu onargarria/ bizitza osorako ohitura osasungarriak irakasten ditu/ bide segurtasuna hobetzen du eskolako ateetan.

BIGARREN HEZKUNTZA: “Next Steps” ekimena

“Next Steps” Bigarren Hezkuntzara pasatzen diren ikasleak oinez joateko erronka da. Bi urrats garrantzitsu daude Next Steps proiektuan, ikasle bakoitzarentzat hezkuntza-baliabide erakargarriak eta kalitate handikoak dituztenak.

- Lehen urratsa bigarren hezkuntzara pasatzean da, udako tailer bat antolatzen da, non laguntza-liburuxka bat ematen zaion ikasleari. Honela, hauei bere instituturara modu seguru eta aktiboan nola iritsi pentsatzera animatuko zaie. Familiekin ere eztabaida sustatzen da etxean.
- Bigarren urratsa Instituturara oinez joateak duen garrantziari buruzko mezu gehigarri bat da. Ondoren batzar batean errepasatuko da.

Hauek dira “Next Steps” ekimena sustatzeko 4 arrazoi: Osasun mentala/Osasun fisikoa/Independentzia/Murriztu egingo du auto-pilaketa eta kutsadura.



4.3. GINEBRA (SUITZA): LA CALLE ES TUYA! - “La ville est à vous”

Genevako hiriak erantzun handiko hainbat eztabaida publiko antolatu zituen mugikortasun jasagarria, irisgarritasuna eta osasunari buruz, eta herritarren kontzientzia areagotu zuen hiriak aurre egin behar dien erronkei dagokionez. Hainbat informazio-gune ezarri ziren, osasun-aholkuak emateko eta haurrekin jolasak antolatzeke. Genevak festa bat ezarri zuen kalean, “Kalea zurea da!” izenokoa, eta zenbait jarduera antolatu zituen gai honi buruz: Errespetuak gure bizitzak aldatzen ditu.

JOURNÉE INTERNATIONALE À PIED À L'ÉCOLE (Eskolara oinez joateko nazioarteko eguna) ekimena ere sortu zuten. 2020ko irailaren 18an, ostirala, (2021eko irailaren 17an ere bai), eskolara oinez joateko gonbita egin zitzaion ikasle guztiei. ATE Plan de Mobilité Scolairek antolatzen duen kanpaina honek 20 urte daromatza mugikortasun aktiboa sustatzen. Mugikortasunaren Europako Astearen parte da. Egun bat aukeratzen da modu desberdinean mugitzeko eta ohitura hori urte osoan zehar finkatzeko. Suitza frantseseko eta Tesinoko 200.000 ikaslek egunean lau aldiz erabiltzen dituzten ibilbideak finkatzeko modu bat da.



Eskolarako bidea gauzatzeko modu dibertigarri bat da, eta aldi berean, auzokide guztiekin eguneroko ibilbide bat ospatzea, modu desberdin batean.

Genevan, halaber, Pedibusaren ekimena bultzatzen dute, linea eta ibilbide berriak gehituz, mugikortasun iraunkorrerako modu eraginkorrek baitira, modu dibertigarri eta osasungarriak. Pedibus-a helduek lagungarri duten sistema bat da, ikasleei eskolara oinez eta segurtasun osoz laguntzeko. Gainera, auzo bateko helduek eta haurrek elkar ezagutzea eta bizikidetza-uneak partekatzea ahalbidetzen du. Haurrek eskolara bidean eduki behar duten jarrera egokia ikasten dute eta autonomia lortzeko urrats batzuk ematen dituzte egunero. Pedibus-aren indar eragileak hauek dira: partekatzea, bizikidetza, segurtasuna, osasuna eta ingurumenaren babesa.

Gainera, Genevako Udalak eskolako ordezkariari erraztu die Pedibuseko linea berriak egitea, honako urrats hauei jarraituz:

- **Hasi guraso interesdunak identifikatzen.** Jo zure guraso eta bizilagunen sarera. Bidali liburuxka eta inkesta bat. Eskolaren edo gurasoen elkartearen bidez ere bana ditzakezu. Jarri Pedibusen kartel bat zure eraikinean.
- **Antolatu zure Pedibusa.** Linearen ibilbidea zehaztea eta geroak finkatzea, leku arriskutsuak saihestuz. Orduetgia ikasleen eta familien beharren arabera definitzea. Orain ibilbideak zehaztea besterik ez da falta.
- **Jarraitu osasun-gomendioei.**
- **Kito!**



4.4. GLASGOW (ERRESUMA BATUA): KALE SEGURUAGOAK

Hiriko ikastetxe askok trafikoarekin lotutako hainbat arazo izaten dituzte eskola-jardunaldi bakoitzaren hasieran eta amaieran. Glasgow-en “School Streets” proiektu pilotua sortu da. Proiektu horrek arazo horiek konpontzea du helburu, une garrantzitsuetan ikastetxeen inguruko kaleetako trafikoa mugatuz eta autorik gabeko gune bat sortuz.

Honekin eskolen inguruan guztiontzako ingurune seguruagoa eta atseginagoa sortzea lortuko da. Planak eskolara oinez eta bizikletaz joateko joan-etorri aktiboak sustatzen ditu, eta horrek, era berean, zonaldeko pilaketa eta kutsadura murrizten laguntzen du.

Planean aurreikusitako onurak honako hauek dira:

- Oinez eta bizikletaz egiten diren joan-etorriak eta ikasleentzako, gurasoentzako eta zaintzaileentzako bizi-modu aktiboak areagotzea.
- Eskolako ateen inguruko trafikoaren, pilaketaren eta kutsaduraren abiadura murriztea.
- Haurren obesitate-maila saihestu.
- Tresna bat ematea, Eskola Kontseiluak bide-segurtasunarekin lotutako kezketan modu proaktiboan erantzun ahal izateko.

Murrizketek esan nahiko dute ibilgailu gehienek, (eskola horietako zaintzaileek gidatutakoek barne) ezin izango dutela eskola-umeak eramateko edo jasotzeko gidatu, bai murrizketek eragindako errepideetan bai murrizketa indarrean da-goen denbora epealdian.

Lehen, ikastetxeetan “autorik gabeko guneak” esaten zitzairen. Eskola-kaleak seinaleztapen batekin identifikatzen dira, zirkulazioa non eteten den jakinarazteko.

2019ko abuztuan sartu zenetik, School Streets proiektua 26 lehen mailako eskolatan ezarri da hiri osoan, 30 eremu berri zabaltzeko asmoarekin. Ikerketaren emaitzek adierazten dute eskola parte-hartzaileen inguruko trafikoan beherakada nabarmena izan dela, betiere murrizketak indarrean daudenean. Jendea seguruago sentitzen delako eta bidaia aktiboetan parte hartzeko joera handiagoa duelako.

British Lung Foundation-ek egindako inkesta baten arabera, Glasgow-ko biztanleek sendo babesten zuten plana, eta % 75ek aldeko iritzia eman zuten. Proiektu piloturako aukeratutako eskolek gurasoen kontseiluen, kontseilu komunitarioen eta ikasleen segurtasunari buruzko kexen eta kezken historiala dute, eta, gainera, pilaketa-maila handiak dituzte.



4.5. EUROPAKO PROIEKTUA: CITY CHANGER CARGO BIKES

